



LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

BANDOA

Europako Mugikortasun Astearekin bat egiten dugu Tolosaldean ere eta mugikortasun jasangarriago bat sustatzeko helburuarekin jarduera batzuk antolatzen ditugu eskualdean.

Irailak 22 (Autorik Gabeko Nazioarteko Eguna): Villabonako Berdura Plazan, azken urteetako ohiturari jarraituz, **mugikortasun iraunkorrarekin zerikusia duten gauza edo marterialen 2. Eskuko azoka** antolatu da. Beraien objektuak saltzeko interesa duten elkarteek edo banakako herritarrek Larraulgo Udal ordutegian utzi ahal izango dute. Epea, osteguna, irailak 20 arte izango da eta interesatuak Udalean dagoen fitxa bat bete behar du.

Irailak 23 Bizikleta Bira eskualdeko bidegorrietan barrena. Ikaztegieta eta Asteasu abiapuntu bezala hartuta, Tolosaldeko bidegorria zeharkatzen du birak, Anoetan, erdibidean, elkartuz. Parte-hartzaileei hamaiketako ekologikoa banatuko zaie Anoetan, sariak banatuko dira partehartzaileen artean eta txikienak ipuin-kontaketa batez gozatzeko aukera izango dute. Ondoren, norberak bere kabuz egin beharko du etxera bueltako bidea.

Informazio gehiago nahi duenak Udaletxe eta Kulturetxeko atarietan dauden kartelen bidez jaso dezake.

Jarduera hauetan parte hartzeko gonbitea luzatzen zaizue.

Larraulen, 2012ko irailaren 13an.

Alkatea

